



Ostirala, 2012ko irailak 28 - 09:37 bilatu...

**Kultura**

Hasiera **BerriaTB** Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak  

Paperekoa PDFn Iragarki laburrak **Hitza**

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Kultura

2012-09-27

DIZIPLINA ARTEKO GUNEA

## Pentsamendu eta arterako bideak

Diziplina arteko ildoak abiapuntuz hartuta, arte garaikidea eta ezagutza sortzeko helburuarekin lan egiten dute Consonni, Bulegoa z/b eta Azalak guneek, ikuspegi ireki batez.

### NAGORE ARES AMAYA

Ohiko erakundeetatik kanpo ere artea eta jakintza sortzeko aukera eta beharra aldarrikatzen dute Consonni arte garaikideko ekoiztetxeko, Azala sorkuntza zentroko eta Bulegoa z/b arte eta jakintza arloko bulegoko kideek. Ohiko erakundeetatik kanpo arteentzako espazioak dira hirurak; oinarri kritikoko arte eta pentsamendu proiektuak garatzen dituzte horietan, betiere testuinguru artistikoa eta jakintza sortzeko asmotan. Nork bere moduan egiten du, artea eta eztabaida muin izanik beti.

Arte garaikidea ekoizten dute Consonniko kideek beren proiektuetan; pentsamendu kritikoa eta artea sortzea dute helburu Bulegoa z/b-en; eta artistei sortzeko espazio eta denbora aproposa emateko asmoa du Azalak. Guztiek ere lotura handia dute testuinguru artistiko eta sozialarekin, eta lan egiteko modu horizontalak erabiltzen dituzte.

### Bulegoa z/b

#### Bidegurutzetatik ikasiz

Diziplinen arteko bidegurutzek eta horietan sortzen diren elkarrizketak interesatzen zaizkie Bulegoa z/b-eko kideei. Arte eta jakintza arloko bulegoa sortu zuten orain dela bi urte Bilboko Solokoetxe auzoan, ikerketa, eztabaida eta hausnarketa egiteko xedez. «Bulegoa z/b gunea ekoizteko, ideiak eztabaidatzeko eta trukatzeko eta arte proiektuak gauzatzeko leku bat da», azaldu dute bertoko kideek. Orain hiru urte lanean hasi ziren Bea Cavia soziologoa, Miren Jaio arte kritikaria eta historialaria, Isabel de Naveran koreografoa eta Leire Bergara arte komisarioa. Norberaren eremua besteekin elkartzeko asmotan, urtebete batzarak egiten eta proiektua itxuratzen ibili ziren, eta jadanik urte bi daramatzate

Solokoetxeko bulegoan. «Hirian finkaturiko erakundeetatik kanpoko espazio bat sortzeko abiatu genuen proiektua, praktiken arteko elkartze gune bat izateko asmoz. Bakoitza eremu batetik dator, eta jakintza eta praktika horiek ez genituen konpartimentuetan banatu nahi, erakundeetan ohi den bezala, baizik eta elkarrizketan jarrri», azaldu du Leire Bergarak.

Diziplinen arteko bidegurutze horrek jende gehiagorengana iristeko aukera ekarri diela irizten diote. «Diziplinak batzarekin batera, audientziak ere bildu ditugu. Oso positiboa izan da hori; erakunde



Bulegoa z/b, Solokoetxen, 2010eko abenduko ekitaldi batean. / BULEGOA Z/B



Azala sortzaileentzako landetxea, Arabako Lasierra herrian. / JUANAN RUIZ / ARP



Consonni eraikina, Zorrotaurren. / LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

### Albisterik...

IRAKURRIENAK **Bozkatuenak** Bidalienak

- 1 Zaragozako Unibertsitatean istiluak eragin dituzte eskuindarrek, EH Bilduren hitzaldi batengatik
- 2 Hemeretzi pertsona hil dira hegazkin istripu batean Nepalen
- 3 Mahomari iseka egiten dion filmaren egilea atxilotu dute
- 4 Bernardo Atxaga eta Joxeanjel Arbelaitz, gaur, Zinemaldi@n saioan, 11:30ean BERRIA.INFOn
- 5 Independentziaren aldeko mozio bat onartu dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek

publikoek publiko orokor bat izan dezaketen arren, arte garaikidea gehienetan espazio espezializatuetan geratzen da. Zaleak, batez ere, artistak dira, edo arte mundutik oso gertu dagoen jendea. Koreografia esperimentalaren arloan ere, antzera gertatzen da, baita soziologiarekin ere», azaldu du Bergarak.

Hala ere, azaldu dutenez, jendeak «argi dauka»nora doan, jakintza autoekoizteko gunea da bulegoa, eta bertan garatzen diren proiektuek inplikazio handia eskatzen diote publikoari. «Oso harrera ona izan dugu», azaldu du Bea Caviak, «eta ez bakarrik hona datorren jendeak parte hartzen duelako, baizik eta kritika on eta txar asko ere jaso izan ditugulako. Jendeak gurekin eztabaidatu eta proposamenak egiten ditugu».

Asko dira urteotan garatutako proiektuak, baina Isidoro Medina Valcel artistarekin batera garatutako proiektua bereziki garrantzitsua dela diote. Artistarekin eta Amsterdamgo If I Can't Dance I Don't Want To Be Part of Your Revolution plataformarekin batera garatutako proiektua da, eta, 18 kontakizunen bidez, sei hiritan egindako bidaia kontatzen du Performance in Resistance-k.

Hasieran «ohiko» bulego batean biltzeko eta norberak bere ikerketan aritu eta besteekin partekatzeko asmoa bazuten ere, Solokoetxan lortutako espazioak proiektuaren alde bat birplanteatzea ekarri zien. «Espazioa ekintzetarako aprobetxatu ahal izateak asko aldatu zuen proiektuaren definizioa, lekuarekin lan egitea ere erabaki genuelako», argitu du Caviak. Izan ere, ohiko bulegoekin zerikusirik ez du Solokoetxeko lokalak: bertan ez dago ordenagailurik, eta dauden altzari eta gauza gehienak mugikorrek dira. «Ez da kasualitatea», dio De Naveranek. «Lan egiteko bulego bat alokatu beharrean, jendea gonbidatzeko eta mintegiak, konferentziak eta proiektzioak egiteko aukera ematen zigun».

## Consonni

### Arte ekoizpenaz mintzo

Solokoetxeko bulegoak leiho handi-handiak ditu; horrek lekua bera eta bertan egiten den lana ikusgai jartzen dituela irizten diote. Halakoak dira Consonni-ren bulegoko leihoak ere; Bulegoa z/b-en bezala, nolabait «ikusgai» jartzen dute ekoiztetxea eta bertan egiten den lana. «Consonniren arazoa da badaudela momentu publiko batzuk, ikusi egiten direnak, baina proiektuek askoz ere fase luzeagoak dituzte, eta horiek ez dira ikusten», azaldu du Marielle Uhaldek. «Bloga eta bulego bat izateak gure lana ikusarazteko aukera ematen digu. Hemen gertatzen den guztiari aurpegia eta izena jartzeko aukera ematen du, ez dadila dena ikusezina izan», gaineratu du Montserrat Brunetek. Intrahistorias blogean beren proiektuen prozesuen inguruko berriak azaltzen dituzte Consonniko kideek.

Abenduan 16 urte beteko ditu ekoiztetxeak, Euskal Herri mailan bere burua arte garaikide ekoizletzat duten gutxienetakoa dira bertoko lagunak. Izan ere, arte ekoizlearen eta arte ekoizpenaren ideiak oraindik eztabaida handia sortzen duten kontzeptuak dira. Lekuaren eta garaia, tokian tokiko politika kulturalen arabera aldatzen dira, baita, besteak beste, artista, ekoizle eta komisarioen definizioetan ere. Produktzioaren askotariko zentzuak aztertzen ari dira Consonniko profesionalak beren proiektuetako batean, *Pájaro y ornitólogo al mismo tiempo* proiektuan (Txoria eta ornitologoa aldi berean). Horretarako, Euskal Herriko eta nazioarteko artista, komisario, historialari, ekonomilari eta politikariek elkarrizketak egiten eta nazioarteko ekoizpen zentroetan egonaldiak egiten ari dira.

Uste dute proiektua ekoizpena ulertzeko duten era berri zehazten ari dela. Hala ere, argitu dute oinarri batetik abiatu eta horri eusten diotela beraiek: «Guretzat, Consonni moduan, ekoizpena proiektuak dakarren guztia da: artistarekin kontzeptua pentsatu eta eztabaidatzen hasi eta proiektuaren aurkezpena eta komunikazioa egin bitartean dauden pauso guztiak barne hartuta», argitu du Uhaldek. «Artista autorea da; proiektua asmatu eta garatzen du, baina dena gurekin elkarlanean egiten du. Horrez gain, finantzaketa lortzea, tokian tokiko politika kulturalak ezagutzea eta kolaboratzaileak bilatzea ere gure lana da. Proiektu bakoitzak espazio zehatzik ez duenez, tokian tokiko eragileekin elkarrizketak garatuz joaten gara, eta horrek ere elikatzen ditu proiektuak».

2005ean proiektua utzi zuen arren, Franck Larcadek sortu zuen Consonni 1997an, «Zorrotzurreko Consonni lantegian hainbat artistarekin proiektuak garatzen hasi zen. Batez ere, hemengo artistekin egin zuen lan hasieran: Sergio Prego, Jon Mikel Euba... Han pare bat urte egon zen, eta aspertu egin zen proiektu guztiak leku berean garatzeaz, ez ziolako askatasunik ematen. Hala, gestio bulego bat alokatzea erabaki zuen, eta proiektu bakoitzerako lekuri aproposena bilatzea», azaldu du Nerea Aierbek. Garai hartan hasi zen Maria Mur Dean egungo zuzendaria Consonnin lanean, Arantza Perezekin batera. Larcadek eta Perezek proiektua utzita, Murrek Consonniren gidaritza hartu zuen. Pixkanaka-pixkanaka Marielle Uhalde, Olaia Miranda, Nerea Aierbe eta Montserrat Brunet taldera batu ziren.

Guztietan ere, kritikotasun handiko proiektuak garatzen dituzte. Besteak beste, feminismoa, gizarte mugimenduak, kontsumo gizartea, espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa eta baita arte ekoizpenaren kontzeptu beraren eboluzioa ere. «Inguratzen gaituen testuinguru ulertzen saiatzen gara beti», zehaztu du Brunetek.

Haiek ekoiztutako Electroclass lanean, Bilboren birsortzea aztertu zuen Maria Ruido artista eta historialariak, hau da, hiri industriala zena turismo hiri bihurtzea eta hedabideek horren inguruan sortutako diskurtsoa. «Finkatutako diskurtsoei buelta ematen dioten proiektuak gustatzen zaizkigu, eta baita gizarte eraikuntza aztertzea ere», azaldu du Uhaldek.

## Azala

### Sorkuntzarako geruza

Sortzeko lekua eta denbora behar duten artistei espazio bat ematen die Lasiera (Araba) herri inguruan dagoen Azala sorkuntza zentroak. 2008 urte amaieran zabaldu zituen ateak, artista eta pentsalariei sorkuntzarako espazio aproposa emateko asmotan. Idoia Zabaleta eta Juan Gonzalez koreografoek sortu zuten, eta, batez ere, arte eszenikoak eta performatiboak oinarri baditu, arlo anitzetako artistak eta pentsalariak ere hartzen ditu urtero. Sorkuntza zentroa izateaz gain, landetxea ere bada.

Artistentzako egoitza izateaz gain, Azalako kideek laborategiak, lantegiak eta mintegiak antolatzen dituzte. «Saiatzen gara parte hartzaileen aldetik oreka bilatzen; ibilbidearen eta esperientziaren bidez, kanpoko eta bertoko jendea biltzen ere saiatzen gara. Kalitatea, profesionaltasuna ere kontuan hartzen ditugu, eta baita gure interes artistiko eta kontzeptualetik abiatuta ere», dio Ixiar Rozasek. Egonaldietan ere irizpide berebere jarraitzen diete artistek, baita proiektuak aukeratzeko ere. Urtero proposamen asko izaten dituzte, eta dagoeneko 2013. urtea beteta daukate.

Azala proiektu eszenikoen lehen etapetarako leku aproposa da, Rozasen ustez, «Oso leku egokia da prozesuak hasteko eta erdiko fase batean garatzeko. Ez da muntatze tekniko handiak egiteko espazioa; horretarako, praktika eszenikoetan lan egiten duten artistek beste lekuetara jotzen dute», azaldu du. «Bukaerako fasetan ere izan daiteke, artista eta lanaren arabera».

Rozasek azaldu legez, bi dira Azalaren helburu nagusiak: jakintza eta testuinguru artistikoa sortzea, batetik, eta erasan eta erasanak izatea, bestetik. Horretarako, artistek bertan egonaldiak izateko aukera izateaz gain, laborategiak, lantegiak eta mintegiak ere egiten dituzte. «Azalak ez da besterik gabe uzten den espazioa. Horretara datorren artistak askatasun osoa dauka espazio guztiak erabiltzeko, baina esan bezala, erasan eta erasanak izaten saiatzen gara. Datozen artistek bere kabuz lan egiten dute, eta badakite gu hor gaudela eta profesionalak garela eta gugana jotzen dute».

Hala izanik, elkarrizketa bideak zabaltzeko xedea ere badute. «Mintegietan-eta eztabaida sortu egiten da. Mintegietan oso eztabaida mamitsuak izaten dira: 12 lagun elkarrekin bizitzen eta edukiei buru-belarri bueltak ematen... Hori, jakina, islatu egiten da gure eguneroko bizitzetan eta lanetan».

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140  
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172  
berria@berria.info - www.berria.info  
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa